



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko otsailaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko otsailaren lehenean, zortziak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatua : GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : MATEO Jean François

Deialdiaren eguna : 2022ko urtarrilaren 28a

Afitzatze eguna : 2022ko urtarrilaren 28a

2.ERABAKIA ABENDOAREN 9 ETA 10-AN GERTATU UHOLDEEN ONDORIOZ DIRU LAGUNTZEN GALDEA

Nomenklatura : 7.10

HUTS BATEN ONDOTIK, AITZINEKO ERABAKIA EZEZTATZEN ETA ORDAINTZEN DU

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazten dio 2021ko uholdeen ondorioz, makur handiak izan direla bideetan, zubietan baita ere bide-bazterretan, ezpondetan eta sostengu murruetan.

Obra horiek zergarik gabe 96 975€ gostako dute, eta aurreikusia den diruztatze plana hauxe izanen da:

- Elkartasun kutxa (%40): 38 790€
- Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorra (%40): 38 790€
- Autodiruztatzea: 19 395€

Jaun Auzapezak proposatzen du ahal bezainbat diru laguntza eskatzea hondamen handiko guneen sustatzeko sortu Elkartasun Fondoari bai eta Pirinio-Atlantikoetako Kontseilu Orokorrari.

Auzapezak aurkezpena egin eta denek eztabaidatu ondoan, Herriko Kontseiluak

- **ONARTZEN DU** 96 975€ ZGkoa den obren kostua.
- **BAIEZTATZEN DU** aurkeztua izan den diruztatze plana.
- **ESKATZEN DU** diru laguntza bat hondamen handiko guneen sustatzeko sortu Elkartasun Fondoari
- **ESKATZEN DU** diru laguntza bat Pirinio-Atlantikoetako Kontseilu Orokorrari.
- **AURREIKUSTEN DU** operazio oso horren gauzatzeko beharrezkoa den kreditua, herriko aurrekontuan.
- **BAIMENA EMATEN DIO** auzapezari hortarako beharrezkoak diren neurriak hartzeko eta dokumentuak izenpetzeko.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 14
Balizko boz kopurua : 14
ALDE : 14
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko otsailaren 1ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/02/17an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/02/17an.

